16. Etxebizitza-tipoa eta hiriaren forma II

1. Donostiako zabalgunearen proiektua, Antonio Kortazar, 1860. Jose Goikoak aldaketak sartu zituen 1886an. Askatasunaren hiribidetik iparrerako etxe-irlek 84 x 56 metro dituzte, eta 20 metroko sakonera (hasieran, izkinako etxeek 20 x 20 metro hartu zituzten, besteek 16 x 20 eta 14,5 x 20); Askatasunaren hiribidetik Artzain Onerainokoek 56 x 54 eta 56 x 74 metro dituzte (izkinako etxeek 20 x 20 zituzten ere bai); Amara zaharrakoek, berriz, 82 x 66 metro (izkinak zatitzen hasi ziren, 20 x 20 handiegia zelako; 8 metroko fatxadakoek bi pieza edo gela dituzte kalera, baina 9 metrokoek hirugarren gela sartzen dute). Autonomia kaleko langileen etxeak, 1906-23, Kortazarren bilbetik irtetzen direnak, San Bartolome muinoaren maldaren hasiera adieraziz (20 metroko sakonera; eskailera erdian baldin badago, etxeak "pasanteak" edo aldez aldekoak dira; eskailera alboan baldin badago, etxeek orientazio bakarra dute).
2. XIX. mendeko zabalguneko etxe-irlaren patio handia pribatua da, eta normalean erabat betetzen da haren behe planta (dendak edo lantegiak daudelako), beraz, zuhaitzak ezin ditu izan. Adibideak: Bartzelonako zabalgunea; Iruñeako zabalguneko azoka, 1943koa, Luis Felipe Gaztelu eta Domingo Ariz arkitektoena.
3. Holanda, Viena eta Hamburgoko XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako etxe-irlen patioak pribatuak dira ere, baina ez dira eraikitzen, beraz, lorategi handiak dituzte edo, behinik behin, zuhaitzak landatzeko aukera.
    - Amsterdamgo hegoaldeko plana (12.000 etxebizitza), 1917-1921, H.P. Berlage; Michel De Klerk eta Piet Kramerren eraikinak.
    - Rotterdamgo Tusschendijken etxe-irlak (120 x 40 m; 8 metroko sakonera bakarrik; Behe eta lehen solairuak sinplex bakarrak dira, bi hormartekoak; 3. eta 4. solairuetan bi duplex daude, hormarte bakarrekoak; horrela eskailerek ez dute 4. solairura arte iritsi behar), 1920-23, J.J.P. Oud.
    - Vienako Karl Marx Hof (Karl Ehn, 1926-30; 1.382 etxebizitza; etxe-tipo anitzak, egitura berdina izanik –eustorma zentroan, fatxadekiko paralelo; sakonera 11,50 metro), Friedrich Engels Platz Hof (Rudolf Perco, 1930-33; 1.467 etxebizitza, fatxadak Otto Wagnerren estiloari jarraiki) eta George Washington Hof (Karl Krist eta Robert Oerley, 1927-30; 1.085 etxebizitza).
    - Hamburgoko Jarrestadt plana, Karl Schneider, 1926-29, 1.800 etxebizitza. 2 logeletako etxebizitzak, 50-60 m2 bitarteko azalerakoak. Bloke linealen lehen pausuak ikusten dira (etxe-irla luzeak ez dira erabat ixten alde laburretan).
4. Etxe-irla handiagoa denean, etxebizitza-eraikin gehiago agertzen dira barnean.
    - Rotterdamgo Spangen auzuneko etxe-irla, Rotterdam, Michiel Brinkman, 1919-20. 145 x 90 metroko etxe-irla. 264 etxebizitza txiki (50-60 m2 ingurukoak). 7 metroko sakonera. Goiko galeriak 2,20 metroko zabalera du (duplexetarako irisbidea ematen du). Erdiko eraikina jarduera publikoak dauzka (zentral termikoa, bainu publikoak eta arroparako garbilekua).
    - *Phipps Garden*, NY, 1930, Clarence Stein. Etxe-irla bakarra, T itxurako gorputzekin.
    - *Hillside Homes*, Williamsbridge, Bronx, NY, 1934, Clarence Stein. 5 etxe-irla T itxurako gorputzekin.
5. Etxe-irla dentsoagoak, 1929-1932: orientazio bakarrarekin (etxe-irlatik kanpora eta barnera).
    - *Finca Roja*, Valentzia, 1929-33, Enrique Viedma Vidal. 378 etxebizitza, 90 m2koak (3 logela), izkinakoak ezik (gela bat gehiago dute). 14 atari dauzka. 25,5 metroko sakonera. Lau etxebizitza solairuko (atariko), orientazio bakarrarekin.
    - *Casa de las Flores*, Argüelles auzunea, Madril, 1931-32, Secundino Zuazo bilbotarra. 120 x 80 m (Castroren zabalgunean txertatua). 288 etxebizitza (88-170 m2 bitartekoak). Bloke lineal bikoitza, etxe-irlara moldatua, eta bloke linealaren aurrekaria. Etxe-irla osoa diseinatu eta eraiki zen (garai hartan ez zen gaur bezain ohikoa). *Monumentu Nazionala* izendatua 1981etik. Lau etxebizitza solairuko (atariko). 26 metroko sakonera (etxe bakoitzak 9 metroko sakonera).
    - Azken honekin erlazionatzen den etxe garaikide tipoa: 168 Babes Ofizialeko Etxebizitzak Lakuan, Gasteiz, Roberto Ercilla, Miguel Angel Campo eta Patxi Mangado, 1998-2002. Lau bloke lineal, 7,30 metroko sakoneradunak. Lau etxebizitza solairuko (atariko). Erdiko gunea pribatua da.